

Kronika-Gogoeta-Kritika

Oroimenez: Joxemi eta Eusebio

Hilabete t'erdiren buruan hil zitzaizkigun: Joxemi Zumalabe aurrenik, Eusebio Osa ondoren. Biak minbiziak jota, biziminez beterik zeudelarik.

Beraien bizimina, ordea, euskararen biziminarekin bategina zuten. Euskalgintzako eta euskal kulturako lagun askotxo ezagutu ditugu, biziminaren indarrean joan zaizkigunak: Salbatore Mitxelena, Rikardo Arregi, Gabriel Aresti, Mikel Zarate, Manex Erdozaintzi,... Lehenago antzera joandakorik edo kendutakorik ere badugu: Xabier Lizardi, Lauaxeta, Aitzol,... Halaxe joan zaizkigu Joxemi eta Eusebio ere.

Bata nahiz bestea euskalgintzan ezagunak zirela esatea oso motz gelditzen da; urtetan horren egile eta eragile oso garrantzizkoak izan dira. Joxemi Donostiatik eta Eusebio Gasteiztik, biak Euskal Herri osoari begira. Joxemi euskarazko komunikabideetan ibili izan da bereziki: Argia eta Euskaldunon Egunkaria; Eusebio, irakaskuntzan: Irakasle-Eskola, Unibertsitatea; biak, ordea, euskalgintzaren osotasunaren grinarekin euskalgintzaren mugimendu herritarraren barrutik ihardun dira: horren suspertzaile, eratzzaile eta eragile. Norberaren ekarpen pertsonal liluragarriaren gainetik ipini zuten indar sozialen aurrerapena eta proiektu kolektiboen burutzapena, euskararen berreskurapenari eta euskal kulturaren pizkundeari begira.

EKBk zor apartekoa du biekin. Joxemi lehendakariorde zela hil zitzaigun; Eusebio ere partaide genuen eta arduradunetakoa izana. EKBen ezezik, bakoitzak hutsune handia utzi du euskalgintzaren alorrean. Bataren eta bestearen eraginaren eta ekarpenaren

handia aztertzeke une egokiagoa etorriko da; hemen oroimena egitea eta eskerrona eskaintzea dagokigu.

Beraiek bultzaturiko eta eragindako mugimendu sozialetan eta proiektu kulturaletan jarraituko du haien oroimen biziak; gainera beraien oroimenak aurrerako esperantza eta konfiantzaren mezua berresteko bide ematen digu, euskararen minbiziaren etsipena zabaldu nahi luketenen kontra: Euskaldunon biziminen kemenak garaituko duela.

Hizkuntz ereduak EAEko Eskolaren Lege berrian

EAEen lehendik ezarrita dauden eskolako hiru hizkuntz ereduak (A, B eta D izenekoei) eutsi die lege berriak. Horien buruzko orain arteko kritikak kontutan harturik, egokia da egoera berrian horiek nola gelditzen diren eta ikasleak euskalduntzen horien baliagarritasuna (edo baliogabezia) aztertzea.

Guztiok dakigunez hiru hizkuntz eredu ditugu; A eredu haur erdaldunentzat pentsatua gai guztiak erdaraz (gaztelaniaz) izanik, euskara gai bezala hartzen duelarik, astean bizpahiru ordutan irakatsiz.

A eredu bere horretan eustea onartezina da gaur egun. Hamar urte pasatxo ditugu eta zenbait azterketa egin izan da eta berorien emaitza jakiteko parada ere izanik, argi eta garbi ikusi dugu A eredu honek ez duela euskalduntzen, erdal irakaskuntza tinkotu eta bermatu baizik. Irakaslearen kaltetan non euskal gizartearen integrazteko aukera guztiak ukatzen baitzaizkie.

Irakaslearen hizkuntz profilaria dagokionez aldiz, ikastetxe txikienean behar diren gutxienezko 14 irakasleetatik, 11 erdaldun eta 3 euskaldun eta EGA agiriaren jabeak izango dira.

Bestalde eredu honetako irakasle erdaldunak 10 urtetako epea izango dute euskara ikasi nahi badute, irakaslearen borondatean oinarritzen baita. Horretaz gain, 45 urtez gorako irakasleak libre uzten dituenaren araua dago, ondorioz, 35 urtetatik gorako irakaslea euskara ikasteko beharretik libre dago, ikasleen eskubideak zapalduz eta irakaslearen erdaldunaren interes gorporatistari erantzunez.

B ereduaren etxetik euskararik ez duten haurrentzat pentsatua dago. Ama hizkuntza erdara eta ingurune soziolinguistikoa ere erdalduna duten ikasleei zuzendua dago. B ereduaren jarraituko duten geletan, bi hizkuntzak, gaztelera eta euskara landuko dituzte. Eredu honetako ikasleak etxetik euskararik ez izan arren, urteetan zehar euskararen jabe izatea da helburua. ("Eskolaurreko Euskararen Programakuntza" Eusko Jaurlaritzak). Gerxeago jarraitzen du: Irakurketa-Idazketa eta matematikak gaztelaniaz irakatsiz eta euskara, beste gaietarako erabiliz.

Eredu honi buruz zerbait aipatzez gero esan beharko dugu Eusko Jaurlaritzatik bertatik bidaliriko EIFE-3 txostenean (Olzairegi, Sierra, 1991) aipaturiko B eta D ereduaren ikasleekin eginiko ikertetatik honoko hau ziotela; Euskaraz, "B ofizial"ekoek besteek baino bajuego puntuatzen dute. Ez dirude, ondorioz, aipaturiko eredu honek